

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Color.
Puro Chile.
Autoekoizpena.
Iraupena: 36'10".
17,95 euro.

Umorearekin eta bizipozarekin egindako rock irekia

MAMEN RODRIGOK (Vulpes, Anticuerpos...) eta Urko Igartiburuk (Tiananmen, Eskorbuto...) aspalditik daukate proiektu hau esku artean; poliki-poliki mimatzen eta lantzen ibili dira; eta dagoeneko hemen daukagu euren lehenengo emaitza luzea. Oinarria gaztelaniaz abestutako rock gitarreroa da eta Mamenen ahotsak pertsonalitate handia eta erregistro aldaketa nahiko ditu. Badira baita punkaren eta Anticuerpos

taldearen eragin batzuk ere. Baina benetan disko honi kolorea eta izaera beroa ematen diona bestelako doinu, umore eta tenpoak dira. Hala, bizitzaren aldeko hitz positiboak aurkituko dituzu, reggae, rumba eta ukitu latinoarekin abestuta. Talde kontzeptua albo-ratuta, familia handi batean, lagun artean, burutu dute. Josu Zabalak, Roberto Mosok, Almudena Cachok eta beste askok esku hartu dute.

Mamen Rodrigo eta Urko Igartiburu - Puro Chile

«Gure helburu nagusienetako bat da gure buruen titiritero izatea»

Puro Chilek esan nahi du intuizioz lan egitea; eta berez disko hau egiten denbora luzea eman duzue. Ez da hala?

U. Igartiburu: Bai, urte eta erdi pasa dugu lanean. Gauza asko egin nahi izan ditugu eta gure baliabide eta erritmoekin egin dugu; gure barneko pultsua erabiliz.

Mamen eta Urko, punkaren ezkortasunetik zatozte, baina lan honekin *carpe diem*-a eta izaera positiboa aldarrikatzen dituzue.

M. Rodrigo: Taldekideok oso une onean gaude, bizitzako gauza askotan botila erdi bete ikusten dugu eta ohartu gabe gure bizitzako bidaia kantueta agerian gelditu da. Josu Zabalak kantuak entzuterakoan esan zigun harrituta gelditu zela: punk ilunetik koloredun rockera pasa garela; eta nahiz eta salbuespenak ere badiren, Josuren definizioa gustatu zitzaigun.

Diskoa autoekoiztu egin duzue eta taldearen managementa ere zuen kargu hartu duzue.

U.I.: Bai, diskoa Lorentzo Records estudiokoekin kaleratu dugu; eta orain dela gutxi lagun bat batu dugu taldera kontzertuak lortu eta landu ditzan. Guretzat beste taldekide bat da, eta bere instrumentu edo zeregina hori da (678 48 53 19). Gauzak gure modura eta konfiantzazko lagune-

kin egitea gustatzen zaigu; bestela zertarako egin!.

Diskoa rock gitarreroaz eta punkaren zein Anticuerposen eraginez gain, badira bluesa, reggaea, rumba eta ukitu latinoak...

M.R.: Bai, gaur egun ez gara estioletara zabaltzearekin kikiltzen; rocka egiten dugu, baina gauza askotara irekita gaude. Nagusi egitearen gauza on bat da orain artekoarekin apurtzeak ez digula kezkatzen.

Txotxongiloek garrantzi handia daukate zuen taldean.

Bai, gure irudietako bat dira. Beti esan dugu gure helburua dela geure buruen titiritero izatea. Zuzenekoetan txotxongiloekin batera interaktatzeko asmoa daukagu. Are gehiago, txotxongiloak herri xumearen antzerki eta albistegia ziren; eta hori errebindikatu beharra dago. ■

